

Sugeek ez dute kalterik egiten eta iheskorak dira, gogaitu ezean.

Mitoak eta elezaharrak arbuia itzazu: sugeek **ez dute abereen edo bularra ematen duten emakumeen titirik hartzen**. Ez dira ugaztunak, eta ez dute bularra hartzeko ezpainik, ezta laktosa asimilatzen duen digestio-aparaturik ere.

Suge eta sugegorri **guztiak legez babestuta daude estatu espainiarrean**. Haien heriotza, jazarpena edo harrapaketa arau-hauste administratiboa izan daiteke, baita penala ere.

Sugeek arratoiak eta lursaguak bezalako **karraskari** ugari **ehizatzen dituzte, gizakiengandik izurriteak eta gaixotasun zoonotikoak urrunduz**, turalemia kasua bezalaxe.

Bideetatik paseatzen ari zarela, errepideko bazterbidean edo zure lursail edo lorategian bertan bat ikusten baduzu eta beldurra edo nahigabea ematen badizu, **ez ezazu hil, lagun iezaiozu** beste leku batera ihes egiten, eskatu laguntza edo saihestu ezazu zuk zeuk.

Ba al zenekien, makilakada batekin hiltzen ez badira, suge batzuk 20 urtez bizi daitezkeela?

UTZI ZURE ALIATUEI BIZITZEN



DIBUJO: IRABE VILLAESCUSA. TEXTO: CARLOS CUELLAR.